

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Zianuroa

GU BAINO animalia azkarragorik bada. Gehienak. Guk ez bezala, zein landare jan eta zein ez ederki asko dakite. Guk? Hik neuk? Aste pare baterako mendian libratu behar...

Mendian eta etxean fruitu gozoak ematen dituzten artean Prunus generoko landare jendea erruz topatuko dugu: muxikondoa (*Prunus persica*), aranondoa (*Prunus domestica*), albertxikondoa (*Prunus armeniaca*), basagereziondoa (*Prunus avium*), gereziondoa (*Prunus cerasus*), brinoiondoa (*Prunus persica* var. *nectarina*), oilarana (*Prunus mahaleb*), otsagereziondoa (*Prunus padus*), paraguaiondoa (*Prunus persica* var. *platycarpa*), Portugal erramua (*Prunus lusitanica*), gerezi-erramua (*Prunus laurocerasus*), elorri beltza (*Prunus spinosa*) eta, izenari kasu egiten badiogu behintzat, denetan gozonen arbendolondoa (*Prunus dulcis*).

Arbendolondo honen fruitu arbendolak, ordea, landare genero honekin azti ibiltzeko aholkua ematen digu eta gure arreta piztu behar luke. Arbendola mikatzak, alegia. Prunus genero osoa pozoitsua da; gutxi edo gehiago pozoitsua. Eta behor jendeak badaki; gure jendeak ez baina hark bai. Pozoi honi "Arbendola mikatza" izena emana zaio, fruitu mikatz horrek duen usain eta dasta bereziek ederki laburbiltzen baitute. Napoleon handia hiltzeko erabili omen zuten eguneroko arbendola mikatz dosiaren kontua txoko honetan azaldua dudala urteak dira.

Bada, zianuroa da du pozoia arbendola mikatzak. Baita fruitu gozo askoak ematen dituzten landare



Muxikondoa, *Prunus persica*.

jende honek ere. Edo, landare jendilajea esan beharko ote dugu? Hostoa, azala, egurra, sustraiak... Landareari nonahi hozka eginez gero zianuroa hartuko dugu. Zaldi, mando eta asto, hau da, behor jendeak ez dio berehalakoan kosk egingo ez. Astakume zoro edo moxal txororen batek dastatuko du, apika, baina laster jasoko du inguruko ezazioa, baita "arbendolondo mikatzaren" dasta ezagutzen ikasi eta memorian betirako gorde ere. Ez denek, inondik ere. Zianuro pozoitzeaz gain, beste gaitz larri batzuk eragin ote ditzaketaren susmo ugari bada, han eta hemen. AEBetan, adibidez, genero honetako landare batzuk, MRLS gaitza medio behorren abortua eragiten dutenaren zantzuak aurkitu dituzte.



Arbendolondoaren (*Prunus dulcis*) loreak.

JOSÉ GARCÍA GABARRÓN



giroa
ERDIBIKO KALERA

Lorazaintza eta Paisajismoa

- Kanpo eta barneko lorategien diseinu eta gauzatzea
- Mantenua
- Dena, tekniko baten gidaritzapean

Ruben Sabalza Hernaez *Nekazal Injenieru Teknikoa*
 Urdaneta,5 · 20800 Zarautz · 657 719 685